



Prozedura / Procedimiento: Hitzarmenak / Convenios
Esp.zk. / N° expte: 2023/18-HITZARMENAK
Interesduna / Interesada/o: MUNGIAKO TRITOIAK TRIATLOI KLUBAMUNGIAKO TRITOIAK TRIATLOI KLUBA
Ordezkarria / Representante:
Lekua / Emplazamiento:
Gaia / Asunto: CONVENIO ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE MUNGIA Y LA ASOCIACION MUNGIAKO TRITOIAK TRIATLOI TALDEA PARA LA ORGANIZACION DE VARIAS ACTIVIDADES EN 2023 // MUNGIA UDALA ETA MUNGIAKO TRITOIAK TRIATLOI TALDEA ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA 2023an JARDUERA BATZUEN ANTOLAKUNTZARAKO

MUNGIAKO UDALAREN ETA “MUNGIAKO TRITOI TRIATLOI TALDEA” ALKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA.

Alde batetik, NAGORE TORRE ANDREA, Kirol Sailaren Zinegotzi arduraduna, Mungia Udalaren ordezkari eta berorren izenean, 2019ko garagarrilaren 19ko Alkatetza Dekretuaren bidez emondako eskuordetza (2019ko abuztuaren 1ean BAO, 145.Zengakian argitaratua).

Bestetik, UNAI CASTILLO JAUNA, Mungia Tritoiak Triatloi Taldearen presidentea (IFZ: G02771970), aurrerantzean, Alkartea.

Bi aldeok Hitzarmen hau egiteko besteko ahalmena aitortzen deusie alkarri, eta bata besteagaz bat datozala, ondokoa

ADIERAZO DABE:

Lehenengoa.- Alkartea irabazi asmo bako Alkartea da eta berorren helburu nagusia triatloia, modalitate guztietan, bultzatzea da.

Bigarrena.- Alkarteak 2023. urtean kirol jardura batzuk antolatzea gure dau, kirola orokorrean sustatzeko helburuarekin eta triatloia bereziki Mungia herrian.

Hirugarrena.- Udalaren 2023ko aurrekontuan diru-laguntza nominatibo bat dago Alkarteari izenean, 42 3411 48107 partidari, hain zuzen.

CONVENIO ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE MUNGIA Y LA ASOCIACIÓN “MUNGIAKO TRITOI TRIATLOI TALDEA”.

De una parte, DÑA. NAGORE TORRE, Concejala Responsable del Área de Deporte, en representación del Ayuntamiento de Mungia, mediante delegación efectuada mediante Decreto de Alcaldía de fecha 19 de julio de 2019 (BOB nº 145 de 1 de agosto de 2019).

De otra, D. UNAI CASTILLO, Presidente de la Asociación Mungia Tritoiak Triatloi Taldea, con NIF G02771970, en adelante la Asociación.

Ambas partes se reconocen capacidad suficiente para otorgar el presente Convenio, y de común acuerdo,

EXPONEN:

Primero.- Que la Asociación es una organización sin ánimo de lucro cuyo objetivo principal es la promoción del deporte del triatlón, en todas sus variantes.

Segundo.- Que la Asociación desea organizar durante el año 2023 varias actividades deportivas, con el objetivo de promocionar el deporte en general y el triatlón en particular en el pueblo de Mungia.

Tercero.- Que el Presupuesto del Ayuntamiento para el ejercicio 2023 incorpora una subvención nominativa a favor de la Asociación. Concretamente en la partida 42 3411 48107.



Laugarrena.- Udalak, Alkatetza Dekretu bidez erabagi eban Alkarteari diru-laguntza emotea, hitzarmena sinatu ezker. Baldintza hori agiri honen bidez beteten da.

Hori danori kontuan izanda, alde biok, bat gatzala, hitzarmen hau sinatzen dogu, eta ondokoak dira

KLAUSULAK

Lehenengoa.- Hitzarmen honen xedea, Mungiako Udalaren eta Alkartearen arteko lankidetzak bideak ezartzea da, Alkartearak 2023 urtean antolatuko dituen jarduerak batzuk sustatzeko.

Bigarrena.- Mungiako Udalak laguntza emongo dau Alkartearak 2023 ekitaldian lan egin daian. Laguntza horren zenbatekoa zazpi mila (7.000) eurokoa da, eta Alkartearen ardura izango da aurrekontutik gorako diru kostuak ordaintzea.

Hirugarrena.- Udal honek emondako diru-laguntza hitzarmen honen hasieran azaldutako helburuak lortzeko erabiliko dau Alkartearak; batez bere 2023 urterako Alkartearen Ekintzen Programan dagozan helburuak lortzeko, beti bere erakunde bakotxaren eskumenak aintzat hartuta eta alkarlana bultzatuta.

Laugarrena.- Diru-laguntzaren zenbatekoa, bakarka hartuta, nahiz beste administrazio edota erakunde publiko zein pribatuek emondako diru-laguntza edo laguntzak batuta, eta helburu bera lortzeko eskuratzen diran beste sarrera edo baliabide batzuk batuta, ez da inoiz izango emondako diru-laguntzaren helburu dan jardueraren kostua baino handiagoa, bigarren klausularen arabera.

Bosgarrena.- Dirua jaso baino lehenago Alkartearak jakokozan agiriak aurkeztu beharko ditu, egiaztatzeko Foru Ogasunagaz zerga arloko betebeharrak egunean ordainduta dituala. Udalak ofizioz ziurtatuko

Cuarto.- Que el Ayuntamiento, mediante resolución de Alcaldía, resolvió abonar a la Asociación la subvención bajo la condición de la suscripción de un convenio regulador, condición que se cumple con el presente documento.

Por lo expuesto, ambas partes, de mutuo acuerdo, suscriben el presente Convenio de conformidad con las siguientes

CLÁUSULAS

Primera.- El presente Convenio tiene por objeto establecer los cauces de colaboración entre el Ayuntamiento de Mungia y la Asociación, para garantizar las actividades organizadas por la Asociación en 2023.

Segunda.- El Ayuntamiento de Mungia contribuirá en la actividad de la Asociación durante el ejercicio 2023 con una aportación de siete mil (7.000) euros, corriendo a cargo de la Asociación el resto de costes que pudieran incrementar la cantidad presupuestada.

Tercera.- La Asociación destinará el importe de la subvención concedida por este Ayuntamiento a la financiación de acciones encaminadas a la consecución de los objetivos señalados en el preámbulo y, en especial, a los fines que se señalan en el Programa de Actividades de la Asociación para el año 2023, siempre desde el respeto al ámbito competencial de cada institución y procurando la colaboración.

Cuarta.- El importe de la subvención en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con subvenciones o ayudas otorgadas por otras Administraciones o entes públicos o privados y con cualesquiera otros ingresos o recursos para la misma finalidad, supere el coste de la finalidad para la que se concedió, de conformidad a la cláusula segunda.

Quinta.- Con anterioridad a la percepción de los fondos, la Asociación aportará la documentación acreditativa de estar al corriente de las obligaciones tributarias con la Hacienda Foral que le corresponden. El



dau Alkartearen egoera Udala zergei jagoken arloan, baita Gizarte Segurantzaren ordainketak bere.

Ayuntamiento comprobará, de oficio, la situación de la Asociación respecto a los tributos de carácter municipal, así como de los pagos de la Seguridad Social.

Seigarrena.- Alkartea, "justifikazio kontu laburtua" aurkeztuko du, 60.000,00 €-tik beherako diru-laguntzetan, 887/2006 Errege Dekretuaren 75. artikuluan zehazten danari jarraituta, Herritarren Arrera Zerbitzuan, 2024ko martiaren 31 baino lehenago. "Justifikazio kontu laburtu" horretan, gixienetik, ondoko informazioa agertuko da:

Sexta.- La Asociación presentará, a través del Servicio de atención a la Ciudadanía, antes del 31 de marzo de 2024, la "cuenta justificativa simplificada", regulada en el artículo 75 del RD 887/2006 para subvenciones concedidas por importe inferior a 60.000,00 euros, que contendrá la siguiente documentación:

- a) Diru-laguntza emoteko baldintzak bete dirala erakusten dauen jardueramemoria; hor zehaztuko da burututako jarduerak eta jarduerotan lortutako emaitzak zeintzuk izan diran.
- b) Jarduerearen gastuen eta diru-sarreraren zerrenda sailkatua; hornitzailea eta dokumentua identifikatu egin beharko dira bertan, baita diru-kopurua, emisino-data eta, behar danean, ordaintze data bere.
- c) Zehaztu egin beharko da jarduera horretan laguntzeko egon diran beste diru-laguntza batzuk, eta diru-kopurua zein izan dan eta horren jatorria.

- a) Una memoria de actuación justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención, con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos.
- b) Una relación clasificada de los gastos e inversiones de la actividad, con identificación del acreedor y del documento, su importe, fecha de emisión y, en su caso, fecha de pago.
- c) Un detalle de otros ingresos o subvenciones que hayan financiado la actividad subvencionada con indicación del importe y su procedencia.

Zazpigarrena.- Alkartea Hitzarmenean hartutako konpromisoetarikoren bat beteko ez baleu, edota emondako diru-laguntzak hitzartutakoa ez dan helbururen baterako erabiliko baleuz, beti bere Udal honek horretarako bideratutako espedienteak hori adierazoten badu, Alkartea itzuli egin beharko deitso Udalari jasotako zenbatekoa.

Séptima.- El incumplimiento de alguno de los compromisos contraídos por la Asociación o la utilización para otros fines de la ayuda concedida, cuando así quede declarado por expediente tramitado al efecto por este Ayuntamiento, implicará la obligación de reintegrar al Ayuntamiento la cantidad obtenida por tal concepto.

Zortzigarrena.- Hitzarmen hau bertan behera ixteko arrazoi izango dira ondokoak:

Octava.- Serán causas de rescisión del presente convenio las siguientes:



- a) Sinatzen daben alde biak horretarako ados egotea.
- b) Alkartek hitzarmen honetan jasotako betebeharrak era larrian ez betetea.
- c) Hitzarmen honen izaerearen arabera, indarrean dagozan legeetan jasoten dan beste edozein arrazoi.

- a) El mutuo acuerdo de las partes suscribientes.
- b) El incumplimiento grave por parte de la Asociación de las obligaciones a que se refiere este Convenio.
- c) Cualquier otra causa que, derivada de la naturaleza del convenio, así se recoja por la legislación vigente.

Adostasunaren lekuko, partaideek honako dokumentu hau izenpetzen dogu, birritan, eta helburu bakarrerako, goiburuan aipatutako lekuan eta egunean.

En prueba de conformidad las partes comparecientes firman el presente documento por duplicado y a un solo efecto en el lugar y fecha arriba indicados.

Ekonomia-Sustapena, Turismo eta Enpleguaren; antolaketa eta
Baliabide Orokor, komunikazio eta gardentasunaren;
Kirolen eta Gazteriaren Arloetako zinegotzia.
Concejala responsable del Área de Promoción económica, Turismo y Empleo,
Organización y Recursos Generales, comunicación, transparencia, Deporte y Juventud

Ondoko honek modu elektronikoan sinatua / Firmado electrónicamente por:
NAGORE TORRE URETA
02/06/2023.15:45:08

Egiaztapen-kode segurua:	14614112513315472373	
Código Seguro Verificación:		
Modu elektronikoan sortutako agiria. Benetakoa dela egiaztatzeko, sartu hemen: https://sede.mungia.eus/validacion		
Documento firmado electrónicamente, autenticidad verificable en https://sede.mungia.eus/validacion		
4 / 4		